

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko urtarrilaren 19a. IX. urtea. 2.345. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Iosu Curiel Historia irakaslea

«Helburua Euskal Herriaren garapen logiko eta bateratua ematea da»

‘Euskal Herriaren historia’ hitzaldia emango du, bihar, Iosu Curiel historia irakasleak, Ikaztegiatiko kultur ekitaldien barruan ◦6

Mikel Agirrezabala
Ibarrako gazteria eta kirol zinegotzia

«Gazteriari onura ekarriko dion ekimenak lantzea da udalaren ardura»

Elkarrizketa ◦7

Joseba Tapiak kontzertua emango du, etzi, Orexako udaletxean

‘Eta tira eta tumba’ lana aurkeztuko du ◦7

Emakumeen sokatirako 450 kiloko finala jokoan, Amezketan

Euskal Herriko goma gaineko txapelketa ikusgai, igande goizean ◦4

Berdintasun baloreetan oinarritutako emanaldia eta festa, Tolosan

Batxilergoko ikasleek antolatutako dituzte ◦2



→ **Arduradun berriak, Alkizako herri ostatuan.** Sonia Rosco eta Oskar Abade hernaniarrek urtarrilaren 9an zabaldu zituzten ostatuaren ateak; aurrera begira taberna eta jatetxe baten zerbitzua emateaz gain, herritarrentzat aisialdirako ekitaldiak antolatutako nahi dituzte, tartean, helduek dantza egiteko aukera. ◦5



Maialen Lujanbio, Amets Arzallus,
Andoni Egana, Aitor Sarrigegi,
Jon Maia, Jexux Mari Irazu
Anaia Agirre

harpidedun **TXOKOA hitza**

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pareta** du

Txolarre Irratiaren Bertso Jaialdia

Urtarrilak 21
Larunbata • 18:00etan
Tolosako Leidorren

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak





Aurten bigarrenegoz antolatu dute jaialdia. HITZA

Ikasbidaia berdintasun baloreekin prestatuko dute batxilergoko ikasleek

Bihar 'Hi haiz hi!' jaialdia eskainiko dute, eta larunbat gauean Batxixango festa izango da Beotibarren

Itzea Urkizu

Tolosako Batxilergo 2. mailako ikasleek, ikasbidaia finantzatzeko jarduerak antolatu dituzte asteburu honetarako, eta genero ikuspegia izan dute lan ildo nagusia, bigarren urtez jarraian.

Bihar izango da lehen ekitaldia, 19:00etan, Topic-en. Ikasleek eurek prestatutako emanaldian, telebistako *Tú sí que vales* programa oinarri hartu dute, eta *Hi haiz hi* izenburupean, ikasleek saio laburrak eskainiko dituzte oholitza gainean: dantza, gitarra-jotzaileak, abeslariak nahiz esketxak. Kike Amonarriz eta Josebe Iturriz epaile lanetan ariko dira, eta bi emanaldirik onenek saria jasoko dute.

Horrez gain, *Beldur barik* lehia-

keta ere txertatu dute ikuskizunetan. Genero ikuspegia lantzeko erkidego mailan antolatzen duten lehiaketa da, baina bertan parte hartzen duten tolosarrekin beste sariketa bat antolatzen dute, aldi berean. Horrela beraz, parte hartzaileen proiektioak ikusgai izango dira biharko emanaldian, eta irabazleei sariak banatuko dizkiete. Azkenik, Keiran taldeak bizpahiru abesti eskainiko ditu; iazko *Beldur barik* lehiaketako irabazleak izan ziren, eta Leire Kortajarena berdintasun teknikariak azaldu duenez, horregatik erabaki dute berriro gonbidatzea. Emanaldiko sarrerak, Topic-en bertan izango dira eskuargarri, 5 euroren truke.

Larunbatean, berriz, Batxixango diskojaia izango da Beotibar pilotalekuan, 23:00etatik 05:00etara bitarte. Herriko DJek jarriko dute musika, DJ Nekionek eta DJ Blond's-ek, zehazki. Festak irauten duen tartean, batxilergoko ikasleek salmenta postua jarriko dute, motxilak, kamisetak, txapak eta antzeko materiala

salduz, ikasbidaiarako dirua lortzeko. Festara sartzeko sarrerek 5 euroko prezioa izango dute, eta pilotalekuan bertan erosi ahal izango dira; saldutako sarreran artean, gainera, bi iPod zozketatuko dituzte.

Baloreak helarazteko lanean

Udaleko Berdintasun saila eta Gazteria saila lankidetzan aritzen dira, Tolosako ikastetxeetako gazteekin batera. Ikasturte amaierako bidaiarako finantzia-zioa lortzeaz gain, prozesua bera izaten da, udal teknikariek beren lanerako erabiltzen dutena. Leire Kortajarenak azaldu zuenez, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna izaten da jarduerak antolatzerakoan jarraitu beharreko haria; horrez gain, elkarlana sustatzen diete gazteei, eta ekitaldi bat antolatzeak dakartzan kudeaketa lanak ezagutzeko ere baliagarria suertatzen zaie.

Astean behin, edo bi astez behin bilerak antolatzen dituzte ikasleekin, eta teknikariek aholkuak ematen dizkiete gazteei, beren ideiak modu egokiak garatu ahal izateko: «Zenbait momentutan aholkuak behar izan dituzte, balio zehatz batzuk helarazi nahi ditugulako indarkeria matxistaren aurka, edo berdintasunaren alde. Bide horretan, bilerak probestu ditugu ikasleei nolabaiteko heziketa eskaintzeko». Era berean, jarduerak antolatzerakoan, emakumearen presentzia bermatzeaz gain, gaiak esparru horretara bideratzen saiatu direla dio Kortajarenak, eta sentiberatasuna izaten, berdintasunaren kontra doazen edukia saihesteko.

• tolosa@hitza.info

Udaberri logotipo lehiaketa antolatu du irudia eraberritzeko

Datorren otsailaren 15a izango da lanak entregatzeko azken eguna; irabazleak 100 euro jasoko ditu

I. Urkizu

Taldearen irudia eraberritzeko asmoz, logotipo lehiaketa antolatu du Tolosako Udaberri dantza taldeak. 55 urte beteko ditu aurtent dantza talde tolosarrak, eta «urte hauetan guztietan zehar, jende ugari pasa da taldearekin», arduradunek diotenez. Gaur egun, hainbat gaztek daramate dantza taldearen kudeaketa guztia, eta urteurrenaren harira, Udaberriren irudia eraberritzeko ideia sortu zaie.

Horrela beraz, logotipo lehiaketa antolatu dute. Parte hartu nahi dutenek honako oinarriari begiratu beharko die: hasteko, lanak PDF formatuan entregatu beharko dira, eta lan bakoitzak 10Mb izango ditu gehienez ere; parte hartzaile bakoitzak bost logotipo aurkezteko aukera izango du, eta gehiago bidaltzen baditu, arduradunek lehenengo bostak hartuko dituzte aintzat; azkenik, logotipo-

ek *Udaberri Dantza Taldea* idatzi-rik izan beharko dute.

Lan guztiak udaberri@udaberri.com helbidera bidali beharko dira, datorren otsailaren 15a baino lehen. Aurkeztutako logotipo guztiak bildu ondoren, Udaberriko arduradunek otsailaren 27an iragarriko dute irabazlearen izena.

Logotipo irabazleak 100 euroko ordainsaria jasoko du, eta irudiaren eskubide guztiak dantza taldeak hartuko ditu.

Helarazi nahi dutena

Taldearen irudia eraberritzeaz gain, Udaberri dantza taldeko ki-deek zenbait balore transmititu nahi dituzte logotipoaren bitartez. Horrela beraz, www.udaberri.com webgunean PDF dokumentu bat zintzilikatu dute; bertan dantza taldeko logotipo zaharra dago ikusgai, eta baita helarazi nahi dutena ere: «Tolosa, tradizioa, talde-lana, alai, dantza, gaztea, euskara eta musika dira gure taldea deskriba lezakeen hitzetako batzuk, eta horiek lehiaketara aurkezten direnentzako lagungarriak izan daitezkeela uste dugu», diote antolatzaileek.

• tolosa@hitza.info

Smartphone-ak marketing munduan erabiltzeko ikastaroa

Tolosaldean Ikastn-ek antolatu du tailerra, eta datorren astelehenean irekiko dute izen ematea

I. Urkizu

Smartphone-ak eguneroko bizitzarako «ezinbesteko tresna» bilakatu direla eta, Tolosaldean Ikastn-ek *Mugikorrek eta Smartphone-ak: Industriara gerturaztea, joerak eta marketing-a* izeneko ikastaroa antolatu du.

Telefono mugikorren munduan azken urteotan gertatu den iraultza eta bilakaera azalduz, sektore honetako joerak azalduko dituzte tailerrean, honek guztiak marketing-erako izan ditzaian erabilerak zehaztuz. Horrela beraz, antolatzaileek ikastaroa garatzen ikasteko tailer tekniko

ez dela izango nabarmendu dute; «industria honi lotutako galdekizunak aztertzeke espazioa» izango dela diote.

Ikastaroan edozein herritarri zuzendua da, eta bereziki, enpresari, udal teknikariei, ekintzaileei, marketing arduraduneri, merkatariari, irakasleei, turismo agentzietan, elkarteetako naziozko publizitate edo web agentzietan.

Ikastaroa 25 orduko izango da, Tolosan, eta saioak asteartetan izango dira, 19:00etatik 21:00etara bitarte; otsailaren 28an hasi, eta martxoaren 27an amaituko da tailerra. Gazteleari erabiliko dute ikastaroan, eta amaitzen dutenei ziurtagiria banatuko diete.

Izena emateko epea urtarrilaren 23an hasiko da, eta 25 euroko ordaindu beharko dituzte parte hartzaileek. Informazio gehiagorako, 615 77 56 78 telefonora dei daiteke, edo info@ikastn.com helbidera idatzi.



Merkatu Txikian «erantzun bikaina» jaso dutela diote

Laskorain ikastolak antolatatu duen ekimenaren bidez, 17.000 euro inguru jaso ahal izan dira

Imanol Garcia

Aurten ere «erantzun bikaina» jaso dutela nabarmendu dute Gabonetako Merkatu Txikiaren balantzea egiterakoan. Laskorain ikastolak antolatatu eta, Ibarrik Misio Taldea, Tolosaldea Sahararekin eta Ibarrik Misio Taldearekin Elkarteak eta Tolosako Udaren laguntzarekin burutu dute. Bertan salgai egon diren jantziak, jostailuak, tresnak e.a. ikastolako familien, Tolosako dendarien eta gainerako herritarren «esku zabaltasunari esker» izan direla azpimarratu dute.

Egitasmo honek urtez urte partaidetza aldetik jasotzen duen erantzuna areagotzen ari dela azpimarratu dute: «Gure esker ona

aman nahi diegu, modu batean zein bestean ekimen honetan parte hartu duzuen guztioi», azaldu dute antolatzaileek.

Laskorain Ikastolako Merkatu Txikia batzordeak «benetan pozgarria» deritza Emaus Fundazioak bazterketaren aurka burutzen duen proiektuari, eta Tolosaldea Sahararekin eta Ibarrik Misio Taldeek dituzten asmoak ezagutzeko nahiz zabaltzeko antolaturiko ekintzetan jaso duten «atxikimendua eta erantzun onari». Horri esker «ehunka gaztek, gurasok, familiak eta herritarrek, azken urte hauetan ezagutu ahal izan dute hainbat jende bizi duen gizarte bazterketa, bai urrutian eta ez hain urrutian, gungandik gertu baizik».

Aldi berean, egoera horiek leuntzeko eskura dauden aukerak eta herritarren artean zabaldu nahi duten konpromisoa ezagutzera eman dutela azaldu dute. «Ziur gaude ekimen xume hauen bidez gizarte solidarioagoaren



Gabonetako Merkatu Txikian parte hartu duten erakundeetako kideak. HITZA

alde ari garela, eta jarraipena izateak merezi duela», gaineratu du Merkatu Txikiko batzordeak. «Kanpaina amaitu da, baina egitekoak egunerokotasunean hor dirau», gaineratu dute.

Parte hartze «oso zabala»
Aurtengo ekitaldiko parte hartzea «oso zabala» izan dela diote, eta datuak jakinarazi dituzte:

guztira 130 dendarik hartu dute parte; antolaketan nahiz salmentan txandetan arduradun eta laguntzaile gisa, hamabi egunetan zehar, 250 guraso, irakasle, ikasle (DBH3 eta 4, eta Batxilergo 1 eta 2) eta ikasle ohi aritu dira laguntzen. Herritarren partaidetza «zenbaezina» dela gaineratu dute.

Helburu nagusia ekonomia

koa ez bazen ere, aurtengo merkatu txikiak «oso erantzun ona» izan duela azaldu dute, 17.000 euro inguru lortuz. Saldu gabe gelditu zen guztia Emaus Fundazioak jaso zuen; diru laguntza, berriz, Ibarrik Misio Taldea eta Tolosaldea Sahararekin taldeen esku geratu da, hauen laguntza-aren premia dutenekin orain arteko lana eginez jarrai dezaten.

Kirolarien mahai ingurua bertan behera geratu da

Ero Etxe elkarteak ikasleei zuzendutako ekitaldia antolatu zuen Topic zentroan, baina ez zen inor azaldu

I. Garcia

Ero Etxe elkarteak atzarako antolatu zuen kirolarien mahai ingurua bertan behera geratu zen, ez zelako inor azaldu Topic aretoa. Bertan parte hartu behar zuten Ekaitz Saies, Mikel Odriozola eta Oiana Blanco goi mailako kirolariak, aurten egingo diren Olimpiar Jokoetarako prestatzen ari direnak.

Ekimenaren koordinatzaileak, Iñigo Asensio, azaldu duenez, «Ero Etxe elkarteak abenduan jarri den harremanetan Tolosako Udaleko kirol sailarekin. Eguna eta ordua erabaki eta udalak ikastetxeekin harremana egin eta hi-

tzaldira bertaratuko ziren ikasle taldeak zehaztu behar zituen».

Urtarrilean zehar hitzordua gogorazi eta «behin baino gehiagotan helarazi zaio udaleko kirol arduradunari. Arantxa Estangarri, hitzaldiaren inguruko informazioa, honi ikastetxeekin lorturiko adostasuna zehaztu zezan», gaineratu du Asensio. «Zehaztasunik lortu ez eta astearte gaueko kirol arduradunen bilera, ez zen nonbait ikasleen parte hartzea ziurtatzea lortu. Ondorioa tamalgarria. Ikastetxei eta konkretuki ikasleei zuzendutako hitzaldira ez zen ikasle bat bera ere bertaratu».

Egoera horren aurrean eta «udalak ardura ikastetxeen gain jartzen zuen bitartean», antolatzaileek hitzaldia bertan behera uztea erabaki zuten. Kirolariei egoera azaldu zieten, eta hauek «egoera ondoegi ulertzen ez zuten arren, alferrikako bidaia eta esfortzua egin izana onartu behar



Mikel Odriozola, Ekaitz Saies, Iñigo Asensio eta Oiana Blanco, Topic zentroaren aretoan. HITZA

izan zuten», azaldu du Asensio. Tolosarako bidaia alferrikakoa izan ez zedin, Topic zentroko ar-

duraduneri eskatu eta hauek present agertu ziren kirolariei txotxongi- loen museoa erakusteko. Bide ba-

tez, Ero Etxe elkarteak bere esker ona adierazi zieten bertako arduradunei.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Interinoa.** Adineko pertsona bat zaintzeko, interino moduan arituko den pertsona euskalduna behar dugu Errezilen. Interesatuak, deitu 699 145856ra.

SALGAI

■ **Autokarabana.** Duke 37 El-nagh markakoa, egoera oso onean dagoen 2007 urteko autokarabana salgai. 6 pertsonen bidaiatzeko eta 6 pertsonen lo

egiteko tokia dauka. Gehigarri guztiak ditu eta beti garajejan gordean izan da. Interesa dutenek, ondorengo telefono zenbakira deitu dezakete: 680 240805.

Sokatira onenaren lekuko izango da Amezketako pilotalekua

Igandean, 11:30ean hasiko dira tiraldiak; besteak beste, emakumezkoen 540 kiloko finala, jokoan

Enertz Maiz Amezketan

Igandean, hilak 22, 11:30ean hasiko da Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketa. Emakumezkoak eta gizonezkoak ariko dira lehian. Amezketako Udala izan da kanporaketa hauen babeslea, eta Ibarra Sokatira Taldearen laguntza izan dute guztia antolatzeko. Ibarra bi talde izango dira parte hartuko dutenak. Amezketako pilotalekuan jokatuko da txapelketa, eta emakumeen kasuan finala izango da. Igandean, sokatiralariak 08:30etik 10:00etara pisaketak egiten ariko dira, talde bakoitza bere pisuan sartu bitartean.



Ibarra taldeko neska sokatiralariak Amezketan izango dira. HITZA

Eta, ondoren, 11:30ean emango diote hasiera txapelketari. Emakumeak 540 kilotan ariko dira, eta finala jokatuko dute. Badaiotz, Bizindar, Sakana, Berriozar eta Ibarra taldeak ariko dira nor baino nor txapela eskuratu nahian.

Gizonezkoek 640 kilotan parte hartuko dute, eta bigarren jardur-

naldia izango da jokoan. Kasu honetan, bederatzi taldek parte hartzen dute: Zudaire, Basaburua-Imotz, Abadiño A, Abadiño B, 6 Conceyos, Sokarri, Amaiur, Txantrea eta Ibarra. Finala, otsailaren 4ean, larunbatean jokatuko dute. Durangoko pilotalekuan.

o alegaldea@hitza.info

Irudia > Ibarra



ZELAI ERREKA GARBITUZ

Iragan urteko azaroaren 5 eta 6ko uholdeek eragindako kalteak ari da konpontzen Eusko Jaurlaritzak. Hain zuzen ere, Ura euskal agentziako langileak erreka garbitzen ari dira hainbat herritan, eta beste hainbatetan egunotan egingo dute. Ibarra Zelai erreka, esaterako, aste honetan ari dira garbitzen. Erreka honetako hama-bost puntutan eragin zuten hondamendia uholdeek. Garbiketekin uholdeen eragina gutxitu nahi dute. R.CALVO

www.euskalherrikoPLAZA.com



Urtarrileko aldapa samurtzeko...

Bidalketa gastuak

DOAN!!

Urtarrilaren 31 bitartean

Gainera:

Euskal-linge
Esku oihala
(70 cm x 140 cm): 24 €



Puntutan
Agenda bat: 8 €
Bi agenda: 12 €



Iparragirre



Cartziategi



Larre-Gain



-%5+ puntu estrak

Sariak:

Otorduak sagardotegietan



Erosketa bakoitzean eskuratzen diren puntuak sariak trukatzeko dira

Agate Deuna bezperan kantuan ateratzeko entseguak deitu dituzte

Bidegoianen eta Ikaztegietan kantuan aterako dira etxetz etxetz; abestiak erreparatzeko entseguak egingo dituzte

E. Maiz Bidegoian / Ikaztegieta

Ikaztegietan eta Bidegoianen Agate Deuna bezperako ezarriak berotzen hasi dira. Otsailaren 4ean, larunbatean, izango da. Bidegoianen dagoeneko lehen entsegu egina dute.

Beste bi entsegu deitu dituzte, eta hilaren 23an eta 30ean egingo

dituzte Goiazko eskolan, 21:00etik aurrera. Iaz bezala, otsailaren 4ean arratsaldean aterako dira kantuan. Etxetz etxetz kantuan ibiliko dira, eta afariarekin emango diote amaiera egunari. Bidania-Goiazko kultur taldeak antolatu du, eta herri osoari luzatu diote gonbidapena.

Ikaztegietako emakumeek ere azken urteetan ongi sustraitutako ohitura dute Agate Deuna bezpera. Aurten ere ez dute hutsik egingo, eta kantuan ibiliko dira. Guztia behar bezala ateratzeko, gaur, 21:00etan entsegu egingo dute kiroldegian.

o alegaldea@berria.info

Udalarekin euskaraz, zure eskubidea delako!

On line bidezko komunikazioa | Informazio bidezko komunikazioa | Hainbat erabilgarri | Udalarekin euskarazko komunikazioa

TOLOSAKO UDALA

Hainbat erabilgarri eta komunikazio bidezko komunikazioa
Tel. 943 00 74 13 - audal@berria.com

Sonia Roscok eta Oskar Abadek hartu dute Alkizako herri ostatuaren ardura: aurrera begira, taberna eta jatetxe baten zerbitzua emateaz gain, aisialdirako ekitaldiak ere antolatu nahi dituzte herritarrentzat.

Familia giroan ireki dute herri ostatua

Asier Imaz Alkiza

Alkizako herri ostatua urtarrilaren 9an ireki zuten Oskar Abadek eta Sonia Roscok. Senar-emazte euskaldunak, sukalde lanetarako urrutira joan beharrik ez du izan, euren bi amen babesa aurkitu baitute. Familia giroan zabaldu dute, beraz, Alkizan une honetan irekita dagoen taberna eta jatetxe bakarra.

Hernaniko bikotea gustura dago Alkizan, eta poliki-poliki joan nahi baldin badute ere, ideia ugari dituzte buruan. Alde bate-tik, herriari ostatu baten berezko zerbitzua eman nahi diote, eta bestetik, aisialdirako hainbat ekitaldi antolatu nahi dituzte.

Asteko zazpi egunetan zabalduko dute herri ostatua, 08:00etatik itxi arte. Orain 09:00ak inguruan zabalitzen dute, baina Alkizako etxea prest dutenean, ordubate lehenago zabalteko asmoa dute. Ehiza garaian, irekiera ordua, 06:00etan jarriko dutela diote, ehiztariak gosaltzeko aukera izan dezaten. Asteazkenean, asteko menua izango da, kafea barne, 9,5 eurotan. Asteburuko menuan, besteak beste, babarrunak eta ukondoa jarri nahi dituztela diote. Aurrez ordua hartu nahi duenak, 943 69 18 36 telefono zenbakira deitzea nahikoa izango du. Egunean bertan joaten denarentzat ere, bazkaltzeko edo afaltzeko aukerarik ez da faltako.



Asteko zazpi egunetan ostatua zabalik egongo da; asteko menua eta asteburuko izango dira»

OSKAR ABAD
Tabernaria

Ostatua eta bere jabe berriak ezagutzeko modurik onena, hala ere, udaletxera joate da. Eraikinaren azpian baitago herri ostatua.

Idéia ugari

Alkizako ostatuan zegoen aurreko maizterrak lanpostua uzteko asmoa zuela jakitean, udalal lehiaketara ateratu zuten herri tabernaren eta jatetxearen kudeaketa. Lanpostuekin batera, egoitza berean dagoen etxebizitzan bizitzeko aukera eskaini zuten. Alkizan bizi den lagun baten bi-

tartez jakin zuten lehiaketaren berri Oskar Abadek eta Sonia Roscok: «Zerrendan izena inork ez zuela eman esan zigun, eta guk aurrera egitea erabaki genuen. Lehen ere ostalaritza munduan ibiliak gara, baina beti beste baten zantzak lanean, eta ez da gauza bera», dio Abadek. Euren aldetik jatetxe bat zabalteko saiakerak egin zituztela ere onartzen du hernaniarrak, «baina azkenean aukera honekin topo egin genuen, eta udalak eskatzen zuen alokairua merkea zenez, aurrera egitea erabaki genuen».



Helduek dantza egiteko aukera izan dezaten, igandetan musika jarri nahi dugu jangelan»

SONIA ROSCO
Tabernaria

Haurdunaldiko zazpigarren hilabetean dagoen Sonia Roscoren esanetan, loteria tokatzea bezala izan da: «Biok langabezia geunden, eta orain, gutxienez bost urterako lana daukagu. Etxebizitza ere hor sartzen da, eta nahiz eta oraindik prest ez dagoen, espero dugu ahalik eta azkarren egoitea». Bertan bizitzen jartzeko irrikaz dago bikotea, lanetik etxera eta etxetik lanerako bide horretan amaitzeko: «Lana amaitzean Hernanira joaten gara orain. Bidean ordubate galtzen dugu gutxienez. Hemen bizitzen jartzen garenean, 08:00etan irekitzeko aukera izango dugu, eta lana amaitu eta ordu erdira ohean egon gaitzeko».

Taberna urtarrilaren 9an ireki baldin bazuten ere, jatetxea astelehen honetan zabaldu dute. «Zerotik hastea» tokatu zaiela diote, eta oraindik ez dakite ongi zein harrera izango duen ostatuak. Hala eta guztiz ere, gustura daude orain artekoarekin: «Igandean jende ugari etorri zen hamaiketako egitera, eta ez genuen horrenbeste espero. Salda behintzat bazegoen eta moldatu ginela uste dut. Hala eta guztiz ere, hurrengorako hobeto prestatuko gara», dio Roscok.

Zerotik hastea tokatu zaie, eta ideia ugari dituzten arren, inbertsio handiegirik ezin dutela egin argi dute: «Denborarekin apaintze lanetan hasiko gara, baina poliki-poliki».

Egin nahi dituzte gauzen artean, herritarrei zuzendurikoak ere badaude, aisialdiarekin lotuta. Sonia Roscok azaldu du zeintzuk diren: «Gazteentzat dardo makinan jarri nahi dugu ostatua. Horrela, ostiraletan eta larunbatean txapelketak egingo genituzke; mus txapelketak ere antolatu nahi ditugu. Helduagoei, berriz, igandetan dantza egiteko aukera eskaini nahiko genieke». Horretako, leku aldetik jangela egokia dute, izan ere, bertan 100 lagunentzat bazkaltzeko eta afaltzeko aukera dago.

Herriko jaiekin lotura duen ekimen bat ere martxan jarri nahi dute ostatuko maizter be-



Oskar Abadek eta Sonia Roscok zabaldu dute Alkizako ostatua. A. IMAZ

rririk. Roscoren esanetan, musika emanaldiak antolatu nahi dituzte jatetxean: «Hauek etorkizuneko talentuenak izango lirarteke, eta bideoz grabatuko genituzke, ondoren sarean zintzilikatzeko. Herriarrek gustuko dituztenak jaie-

tan parte hartzeko aukera izango luke. Honen inguruan udalarekin hizketan aritu gara, eta gustuko dutela esan digute. Hala eta guztiz ere, lehen esan bezala, poliki-poliki joan nahiko genuke ideia hauekin guztiekin».

Garenak **x2** izateko

*Lagun iezaguzu
harpidedun berriak egiten*

ekar ezazu hitzaren harpidedun berri bat

**Gainera, gertukoak zoriontzeko
agur bat oparituko dizugu
HITZAn argitaratzeko.**

*HITZA, euskarazko
herri informazioaren leihoa*

eta **opari
bana**
jasoko duzue



**HITZAren
jertsea**
harpidedunak



Mahala saskia harpidedun berriak

Harpidedun berria urtarrilaren 31 baino lehen ekartzen dutenentzat.

Iosu Curiel Iartza ◉ **Historia irakaslea**

Iosu Curiel Iartza historia irakaslea, 'Euskal Herriaren Historia' hitzaldia eskainiko du bihar 21:00etan Ikaztegiatako udaletxeko aretoan. Euskal Herriaren historiaren errebasoa egingo du Paleolito garaian hasi eta azken mendera bitarte.

«Pirinioak gure herriaren bizkarrezurra izan dira»

Enritz Maiz ikaztegieta

Iosu Curiel Iartza (Lasarte, 1976) historia irakaslea eta Erdi Aroko Historian doktorea da. Bihar, *Euskal Herriaren Historia* hitzaldia eskainiko du Ikaztegiatan. 21:00etan hasiko da udaletxeko areto nagusian.

Euskal Herriaren historia hitzaldia eman behar duzu. Oso zabalda izan daiteke gaia eta nondik nora kontatuko duzu?

Hausnarketa batetik hasiko naiz hitzaldia ematen, hau da, Euskal Herriari buruz hitz egitean, lurralde bezala hartu behar ote dugun, edota, aldiz, gure herri edo nazioaren historiari hitz egin nahi ote dugun.

Zein garaitik hasiko zara historia kontatzen?

Paleolito garaitik hasita. Paleolito eta goi paleolito garaia oso azkar pasatzen den tartea da. Europa osoan glaziazioa zegoen garaian, gaurko euskal lurraldea badakigu babesleku izan zela. Akitaniako eremuan ere populazioa bildu egin zen. Duela 15.000 urtez ari gara, eta hemen hainbat aztarnategi ditugu, Ekain edo Santimamiñe, esaterako. Eta ez bakarrik Euskal Herrian edo gaurko euskal lurraldean, baita beste hainbat lekutan ere. Horieta hitz hainbat teoria sortu dira; esaterako ea duela 15.000 urte euskarra egiten ote zen. Biztanle horiek, berriro, Europa birpopulatu zuten, euskararen substratu hori zabalduko ote zuten edo ez. Egia esan, gaur egun, teoria honek ez du jarraitzaile askorik, baina lehen harria botatzeko sarrera moduan erabiltzen dut nik.

Behin amua botata, zerekin jarraituko duzu.

Aitzin Aroarekin jarraitzen dut, baina hor sartu aurretik Neolito garaia edukiko genuke eta, hemen, Joxe Migel Barandiaranek aipatzen du ziurrenik euskaraz mintzatzen zela. Horren adibide hainbat hitz ditugu; gaur egungo tresnak izango lirarteke, eta burnez edo metalez eginak. Euskaraz aitz aurrikzia dutenak dira: aizkora, aitzurra, aitzkora (gezia), eta lehen aldiz izendatu zirenean, harriz egiten zirela esan nahiko luke, eta metal aroa baino lehenagokoak direla. Barandiaranen ustetan, honek frogatzen du, neolito garaian euskaraz mintzatzen zela



HITZA

edo euskararen aitzindaritzat jo dezakegun hizkuntza egiten zela gure lurraldean.

Aitzin Aroan zer izango litzateke deigarriena?

Euskal tribuak ikasi ditugu guztioak: autrigoiak, bisigodoak, karistiarrak eta baskoiak. Baina hauek, gaur egungo ikuspuntutik begiraturik ikasi ditugu. Aitzin Aroko Euskal Herria askoz ere zabalagoa litzateke. Bordele edo Kataluniar Herrialdeetaraino, edota Errioxako eta Burgosko lurretara iristen ziren euskaldunak, eta garaiko euskal tribuak gehiago izango ziren, eta honek hausnarketa egitera behartzen gaitu.

Eskeletan ikasitako historia zalan-tzan jarriko da, beraz.

Lurraldetasunaren ukazioa bizi du Euskal Herriak zazpi lurraldeak kontuan hartu nahi badira behintzat. Zenbait eskola liburutuan, euskal historia gaurko Euskal Autonomia Erkidegora mugatzen zen. Eta euskal tribuak, autrigoiak, karistiarrak eta bardoak ziren, eta besterik ez. Eta nahiko paradoxikoa zen, zeren baskoiak kanpoan geratzen ziren. Beraz, erderaz gure hizkuntzari eta gure lurraldeari izena eman dioten tribua kanpoan gelditzen zen. Guk argi eta garbi ikusi behar dugu, duela milaka urte euskal lurraldea inondik inora ere ez zela hori. Latinaren aurretik Europa mendebaldean iraungo duen hizkuntza bakarra eus-tara izango zen, Akitaniako lur-retan.

Zure hitzaldiaren helburua zein da, muga horiek guztiak apurtzea?

Gure historiaren zertzelada batzuk eduki ditzakegu buruan, baina Euskal Herria bere osotasunean hartu, eta garapen logiko eta bateratu bat ematea da helburua. Nahiz eta, batasun politikoa ez den historia osoan zehar izan. Li-burutegi batera joaten bazara, Espainiako edo Frantziako historia dago ez dakit zenbat aletan, baina horrek ez du esan nahi Frantzia eta Espainia beti elkarrekin egon direnik. Baina horretarako, gaur egungo unitate administratiboa hartzen dute, eta horren haritik atzeraka tiratzen dute. Hori da agian egitea egokituko litzai-gukeena. Batetik, materialak sor-tzea, eta ez dut esango ez dagoe-nik, zeren bada. Batez ere, dibul-gazio mailan ari dira lanean, eta material ezberdina dago irakas-tuntzarako edo kontsumo oroko-rrerako.

Zein beste garai aipatuko dituzu?

Zaila da laburbiltzea baina bat-zuk aipatze arren: Ebrotik Garo-nako ibaira bitartean Frankoek sortzen duten Baskoniako duke-rria; Orreagako Guda; oso data esanguratsua den 824. urteko Orreagako III. Gudu; Estatu mo-dernoen sorrera; Nafarroako Erresuma; foruen eraketa; Eus-kal matxinadak; baseria eta in-dustrializazioa; karlistadak eta Liberalen Iraultza; abertzaletasu-na eta nazionalismoa,... eta azken mendeen ez naiz sartuko.

Beraz, material egokia badago.

Nik erabiltzen ditudan Euskal Herriko Atlas Historikotik hartu-tako mapak dira, ondo dokumen-tatuta eta oso ondo egindakoak dira. Badaude entziklopediak Euskal Herria lurraldea bere oso-tasunean hartzen dutenak, eta hori da funtsezkoa. Euskal lurral-dea bere osotasunean unitate be-zala hartzea, eta horren haritik ti-raz gure historia kontatzea. Ez ba-karrrik Nafarroako Erresumaren historia, esaterako, Bizkaiko mendebaldean Nafarroaren pre-sentzia oso eskasa izan zen, baka-

Euskal Herria gaur egun gauza bat da, eta dela 2.000 urte beste bat izango zen

Sistema demokratiko burgesak, zentsuraren aurrean manipulazioa erabili izan du

rrik mende batera mugatzen da. Baina hori ere Euskal Herria de-nez, sartu egin behar da. Modu bateratuan kontatu behar da.

Zuk zein iturri darabiltzazu gure historia kontatzeko?

Nire ustetan, Euskal Herria kon-tutan hartzen duten dibulgazio lanak egin badaude, eta horetik hartzen dut batez ere informa-zioa. Baina egia da, maila akade-miko batera eta ikerkuntzara hel-duta oraindik hor zer egin da-ukagula. Badaude hainbat era-

kunde eta elkarte lanean ari dire-nak, esaterako Nabarralde eta bere indusketa arkeologikoak. Baina, hauek ziurrenik gako be-zala Nafarroako Erresuma hartu-ko zuten, eta hari horretatik tira-ka ari dira lanean. Nahikoa infor-mazio badago, nahiz eta, leku batetik eta bestetik hartu behar izan dudan informazioa, eta batu egin ditut. Horretan sakondu be-har dugu, ikerketa mailan ere, hausnarketak egiteko garaian, lurraldea bere osotasunean har-tzen edo behintzat hartzeko saia-kera egin behar dugu. Agian, bat-zuetan ezinezkoa izango da.

Euskal Herriaren historia kontatu ahal izateko euskararekin asko lotzen duzu.

Euskal Herria toponimo zabala dugu, eta Euskal Herriak euska-raren herria esan nahi du. Euskal Herria gaur egun gauza bat litza-teke, eta ziurrekin duela 2.000 urte beste bat izango zen. Garape-na ere ikusi behar da. Adibide bat jartze arren: Antxo III.ak Aragoin bazeukan eragina, eta Aragoin ez zen Euskal Herria. Orduan zertan ari zarete zuek Antxo III.a ai-patzen batasun baten baitan? Baina, garaiko Aragoin, ziurre-nik Euskal Herriaren parte izan-go zen. Euskal zonaldearen parte zen. Bestetik, ordea, gure hizkun-tzaren gaineko informazioak es-kasak dira eta, normalean inte-resgarriak izaten dira.

Galtzaile eta irabazleen arteko historia ikertzen dituzte. Nola ikusten duzu?

Horretara mugatu gabe ere, eta gainera, orain Euskal Herria bizi ditugun garai berri hauetan oso modan jarri den memoriaren eraikuntza dago. Azken 50 urte hauetako memoriak, baina me-moria historia guztira zabaldu dezakegu. Hortaz, egia da eta fil-tratu egin behar da modu batean edo bestean hainbat lekuatik hartzen duzun materiala. Ez da bakarrik galtzaile edo irabazle, baizik eta nola eraikitzen den dis-kurso historikoa, eta diskurtso ofizial horri buelta eman behar diogu. Sistema demokratiko bur-gesak zentsuraren aurrean mani-pulazioa erabili du.

Hegoaldetik begiraturik, sarritan ipar Euskal Herriko lurrak ahaztu egiten dituzte.

Gure gaur egungo mapa politiko-an, Pirinioak gure lurraldea eta bi estatuak banatzen dituen men-diak dira. Baina, Pirinioak gure herriaren bizkarrezurra izan dira. Gu Pirinioetako herriak gara, eta gaur egun Bizkaiko Gol-kora begira zokoratuta gaude, baina urteetako ibilbidea ikusita Añamendi eta Pirinioak izan dira gure herria artikulatu duten mendiak. Ez dira inoiz muga bat izan, eta gure lotura esparru nat-urala izan dira. Bisigodo eta Frankoek erasoak egiten zituzte-nean esaten zuten; Ebrora eta Aturrira iristen zirela, baina ba-rrura sartzea ezinezkoa izaten zu-tela.

Irudia ◊ Ibarra**ETXEBIZITZA TASATUEN ZOZKETA EGIN DUTE**

Euskal Herria kaleko 18. zenbakian eraiki dituzten lau etxebizitza tasatuen zozketa egin zuten atzo. 14 lagunek eman zuten bertarako izena, eta zozketara hamar lagun aurkeztu ziren. Lau etxebizitza horietatik handienak 81,58 m2 ditu, eta pre-

zioa 251.160 eurokoa da. 54,72 m2ko etxebizitzaren prezioa 177.180 eurokoa da, eta 52,20 m2 dituzten bi etxebizitzena, 169.315 eurokoa. Etxebizitza egokitu zaien hamabost eguneko epea dute uko egiteko. I. TERRADILLOS

Joseba Tapiaren emanaldia, etzi, Orexako udaletxean

Bigarren guda karlista ardatz duen 'Eta tira eta tumba' lana aurkeztuko du Lasarteko trikitilariak

I. Terradillos Orexa

Joseba Tapiaren kontzertuaz gozatzeko aukera izango da etzi, 20:00etan hasita, Orexako udaletxe ganberan. Lasarteko trikitilariak *Eta tira eta tumba* bere azken lana aurkeztuko du.

Bigarren guda Karlisten eta liberalen doinu historikoak jasotzen dituzten 22 kantu biltzen ditu 2010eko



Joseba Tapiá. HITZA

irailean argitaratu zuen disko honetan. «Zer izan garen eta zer ezin garen izan erakusten dutelako, borroka erratu bat islatzen dutelako eta herriaren ahotan zatika baino iraun ez dutelako egin dute, dio Tapiak.

Mikel Agirrezabala ◊ Ibarra gazteria eta kirol zinegotzia**«Ez dugu gune edo ekimenik herriko gazte guztiak elkartu eta ezagutzeko»**

Iñigo Terradillos Ibarra

Ibarra Udalak gazteria alorrean diagnostikoa egin nahi du, etorkizunerako lan-ildoak zehaztu eta proposamenak jasotzeko asmotan. Galdetegi baten bidez, 16 eta 26 urte bitarteko herriko gazteen iritzia eta ikuspuntua jasoko du. Mikel Agirrezabala (Ibarra, 1991) gazteria eta kirol zinegotziaren arabera, «oso konplexua» da Ibarra gazteen egitura.

Ekimen hau zergatik jarri duzue martxan?

Ibarra Udalak gazteria saila beti izan du, baina sail honek azken urteetan ez du funtzionamendurik izan. Hori ikusirik, beharrezkotzat jo dugu gazteria alorrean zerbait egitea eta lan

horretan lehen ekimena diagnostiko bat egiten hastea izan da.

Gazteriaren diagnostiko bat egiteko zein informazio iturri erabiliko dituzue?

Lehenik eta behin, 16 eta 26 urte bitarteko 554 herriko gazteri galdetegi bat helarazi zaie posta bidez. Hauek beteta urtarrilaren 17rako Ibarra Kultur Etxean entregatu behar ziren, baina behar eta nahi adina jaso ez ditugunez, epea luzatzea erabaki dugu urtarrilaren 31ra arte. Norbaitek galdetegia galdu badu, kultur etxean edo web orrian aukera izango du eskuratzeko. Galdetegi hau gehiengo batek betetzen badu, ondorio batzuk aterako ditugu eta beste galdetegi bat sortuko da. Galdetegi berri horrekin



HITZA

zortzi elkarrizketa ireki egingo ditugu eta horren ondotik lan talde zabal bat sortu. Horrela funtzionatuko ez balu, batzar ireki bat deituko genuke Ibarra eta ai-

sialdia bertan egiten duten gazteentzako.

Diagnostikoa egin ondoren, zein lan-ildo eta ekimen jartzeko asmoa dago?

Diagnostiko zabal bat egin nahi dugu, Ibarra gazteria oso anitza da eta horrek lan hau zaildu egiten digu. Gazteriari pertsonalki edo orokorrean onura ekarrikodion zerbait landu beharra daukagu eta horretarako beraien proposamen eta ideiak beharrezkoak ditugu. Guretzako errazena hiru irteera jarri eta gazteentzako zerbait egiten dugula esatea da, baina horrekin ez goaz inora.

Gaur egungo Ibarra gazteria nola ikusten duzu?

Lehen esan dudan moduan, oso konplexua da Ibarra gazteriar-

ren egitura. Batetik, Tolosaldeko hurbiltasunak Tolosaldeko trikitatik ikasteak eragin handia du. Gainera, ez dago gune edo ekimenik Ibarra gazte guztiak ezagutu eta elkartzen direnik. Bestetik, orokorrean gazteriari ametsak eta proiektu berriak falta zaizkio eta horrek gazterian ageriko ondorioak ekarri ditu. Adibide da gaur egungo gazteriarren aisialdi eredu eta horretan ere lan-keta sakon bat egin beharko dugu.

Nolako lan-keta egiteko asmoa duzue aisialdi ereduarekin?

Ez da erraza ohitura batzuk zailtasun jartzea, baina gazte lokalen gaia hor dugu. Gazteek beren aisialdi egiteko guneak behar dituzte eta gazteriak bere ibilbidea egin du fenomeno horrekin. Baina, gazteria zinegotzi moduan ez dituzte gazteak lokalatan sartuta ikusi nahi beren ideiak alferrik galtzen. Gainera, kontuan izan behar dugu gazte lokal gehienak tolosaldekoak direla eta horrek go-goeta sakon baten beharra eskatzen digu.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

ZINEA

■ **Tolosa.** Zine forumaren barruan, *El niño de la bicicleta* filma emango dute, 19:15ean eta 21:45ean, Leidor aretoan.

DEIALDIK

- **Ikaztegieta.** Santa Ageda Bezperan abesten aterako direnek entsegua egingo dute, 21:00etan, kiroldegian.
- **Tolosa.** Gipuzkoan azpiegitura lan handiak geldiaraztearean alde abian jarri diren ekintzen artean, *Autopista elektrikoa kezka iturribideo emanaldia*, 19:00etan, kultur etxean.
- **Tolosa.** Igandean egingo den Ero Etxe elkartearen XXV. kro-sean izena eman daiteke ikastetxeetan. Egun berean, proba hasi aurretik ere izena eman ahal izango da.
- **Tolosa.** Box.A arte elkarteak serigrafia tailerra antolatu du hilaren 21 eta 22rako. Tailerra doan da. Informazio gehiago gu@boxagara.com helbidean.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Bidegoiango Udalaren eta HITZaren akordioa, euskarazko prentsa sustatzeko

2012rako lortu dute hitzarmena, eta horren arabera, herritarrek lau tokitan jaso ahalko dituzte HITZaren aleak

Erredakzioa Bidegoian

Euskarazko tokiko prentsa sustatzeko, Bidegoiango Udalak eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK akordioa adostu dute. Hitzarmen horren arabera, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN edizio bakoitzaren aleak banatuko dira herriko hainbat tokitan: Kontsejun, Dendalen, Harategian eta Toki-Alai tabernan. Honela, herritarrek hala nahi izanez gero bertatik eskuratu ahal izango dute egunkaria.

Banaketaren kostuari aurre egiteko, Bidegoiango Udalak 2012 ekitaldirako 680 euroko diru laguntza emango dio HITZARI. Urte honen amaieran, bai udalak eta baita HITZAK ere, Bidegoiango herritarrei eskualdeko euskarazko egunkariaren harpidetza egiteko gonbitea luzatuko diete. 2013 hasieran, bi aldeek saiakera honen balantze objektiboa burutuko dute. Aipatutako lekuetan egunkariaren banaketa egiteak, ez die aldatetarik eragingo egun HITZAREN harpidedunak diren Bidegoiango herritarrei. Hauek



Bidegoiango Udalak eta HITZAK hitzarmena lotu dute. A. IMAZ

egunkaria etxean jasotzen jarraituko dute. Akordio honen bidez, bai udalak nola HITZAK, harpidedun hauei harpidetza mantentzeko akordio garrantzitsu gogorarazten die. Izan ere, 2012ko banaketa berezi honen helburua, 2013rako

ahalik eta harpidedun gehien lortu eta eskualdeko euskarazko prentsa indartzea da.

Udal hauteskundearen ondoren, Bidegoiaren eratu zen udal berriaren alkate eta alkateordeekin hainbat bilera egin ditu HI-

TZAKO kudeatzaileak. Hain justu, bilera horien helburua, Bidegoiango herritarrei euskarazko prentsa eskuratzeko ahalik eta erraztasun handienak ematea izan da. Horri erantzuna emateko burutu da akordioa.

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

liburua erosteko aukera duzue:

• Liburudendetan:

Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €

Anoetan: Kuku-lore liburudenda.

Ibarran: Lurdes liburudenda.

Tolosan: Aramburu liburudenda, Elkar liburudenda eta Babel liburudenda.

Villabonan: Kazetaria liburudenda.

• HITZAKO bulegoan:

Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

• Eskaintza berezia

HITZAREN egoitzara etortzean, '1936ko Gerrako Oroitzapenak' liburua ere eskuratu ahal izango duzue:

prezioa 10 € eta harpidedunek 8 €.

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean + 1936ko Gerrako Oroitzapenak, bi liburuak, 25 €, harpidedunek 20 €.

